



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, 2022KO EKAINAREN 28KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN
ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, 2022KO EKAINAREN 29RAKO DEITUTAKO
GREBAK DIRAUEN BITARTEAN ARABAKO EGOITZEN SEKTOREAN
ERKIDEGOARI EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUA MANTENDUKO DELA
BERMATZEN DUENA.**

ELA eta LAB sindikatuek grebara deitu du Arabako egoitzen sektorean, 2022ko ekainaren 29rako. Greba 29ko 00:00etan, eta egun bereko 23:59etan amaituko da.

Greba-deialdiaren helburuak honako hauek dira: *“Langileen baldintzak hobetuko dituen hitzarmen kolektiboa negoziatzea”*.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarritzko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarritzko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarritzko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzeari. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

ELA eta LAB sindikatuek deitutako, lanaldi osoko egun bateko greba da, ekainaren 29an, Arabako Egoitzetako sektorean, 00:00tan hasiko da eta 23:59 tan amaituko da.

Horrenbestez, behar bezala babestu behar dira bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasun-babeserako eskubideak —Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan jasotakoak—, zeinak agintari publikoek bermatu behar baitituzte ziurtatuta beharrezkoak diren zerbitzuak ematen direla eta prebentzio-neurriak ezarrita, eta, aldi berean, greba egiteko eskubidea zilegi dela kontuan hartuta. 10.1. artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, «Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Bestalde, osasunaren babesa herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubide gisa islatzen da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren arabera. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948) 25.1 artikuluan dioenez, «Pertsona orok du osasunerako eta ongizaterako eskubidea, eta, bereziki, laguntza medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako», eta zentzu berean adierazten dira Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua, Europako Kontseiluarena (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (NBE 1966) 12. artikulua.

Aurreko guztia kontuan izanik Bizkaiko egoitzen sektoreko greba-deialdi berri horri dagokionez, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu beharko ditu bermatzeko funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola egoitza arretan, bat etorrita honako arau hauetan ezarritakoarekin: Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua eta horrekin bat datozenak; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Adintsuentzako

etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez aldatua), eta Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua, betiere Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Horren haritik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege-Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobernuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko –hala badagokio– eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia, apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Baina eskumen hori gauzatzeak ezin du, inondik inora, de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia hutsaldu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura emanda; horrela, izaera mugatzailea kontuan hartuta ezarri beharrekoa da. Horregatik, dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraikiz, beharrezkoa da, izaera mugatzaile horren barruan, proportzionaltasun egokia ere bermatzea, babestu beharreko gainerako eskubideei begira; hala, ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira murrizketa horiek.

Apartamentu babestuak, adinekoen egoitza-zerbitzuetako, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroetako zerbitzu publikoak «ezinbestekoak» dira, aldez aurretik aipatu ditugun arauak jarraikiz. Izan ere, prestazio horien onuradunak adinekoak edota mendekotasuna duten pertsonak dira, zeinak osasun-gabezia larriak izaten baitituzte, eta, horrenbestez, sistemaren laguntza integrala behar dute, arreta emateko bai haien autonomiari baita legeak onartu dien mendekotasun-mailari; horri erantsi behar zaio laguntza pertsonal handia ere behar dutela, bizitzaren eguneroko zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2. artikuluetan jasota dauden bizirako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan, baita gizabanakoen duintasuna ere, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa jasotzen baita 10.1. artikuluan.

Zerbitzu horien guztien oinarritzotasuna bermatu eta, aldi berean, langileen greba-eskubidearen funtsezko edukiarekin uztartzeko, honako egoera hauek hartu behar dira kontuan:

1) Egoitza-arretako zerbitzua, abenduaren 14ko 39/2006 legearen, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa, 25. artikuluko terminologiaren arabera, adinekoentzako egoitza harrerako eta laguntza integraleko zentroa da, etengabeko osasun-zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituen, iraunkor bihur daitezkeen baldin eta egoitza hori adinekoaren ohiko egoitza bada. Kategoria horren barnean, honako egoitza mota hauek bereiz daitezke, martxoaren 10eko

41/1998 Dekretuaren, Adintsuentzako funtsezko gizarte-zerbitzuei buruzkoa, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Tutoretzapeko apartamentuak: Pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten egoera psikofisiko eta soziala dela eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira.

Etxebizitza komunitarioa: Bizikidetza-unitatea, gehienez 14 plazakoa, nolabaiteko autonomia-maila duten adinekoentzat sortua, eta familiakoaren antzeko giroa eskaintzen duena.

Egoitza: 14 plazatik gorako edukiera duen bizikidetza-zentroa, etxebizitza iraunkor eta partekatua izateko sortua, eta mendekoei etengabeko arreta integrala eskaintzen diena. Gradu handiko ezintasunak dituztenei laguntzeko behar adinako baliabide materialez hornituko da ezinbestean.

2) Eguneko zentroko zerbitzuak mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza, prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaikuntza edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Zentro hauen tipologia, horiek arautzen dituen araudiaren arabera, honako hau da: 65 urtez beherakoentzako eguneko zentroak, 65 urtez gorakoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikoak eskaintzen dituztenak.

3) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan, hiru mendekotasun-gradu ezartzen dira, eta gradu horren arabera zehazten da mendekotasuna duten pertsonen arreta. Hori horrela izanik, «mendekotasun handia» (III. gradua) duten pertsonak egunero askotan behar dute laguntza eguneroko oinarritzko jarduera batzuk egiteko, eta beste pertsona baten edo batzuen etengabeko laguntza behar dute, guztiz galduta dutelako beren autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala. «Mendekotasun larria» dutenek (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera batzuk egiteko, egunean bizpahiru aldiz, baina ez dute behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea; nolanahi ere, laguntza premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendekotasun arina» dutenek (I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera batzuk egiteko, gutxienez egunean behin, edo laguntza behar izaten dute, tarteka edo hein batean, beren autonomia pertsonalean.

4) Egoiliarren ezintasun-mailaren eta horren ondoriozko mendekotasunaren arabera, laguntza eta arreta integralerako hainbat maila daude zehaztuta pertsona horien eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretan.

5) Sektore horretan pertsoneri ematen zaizkien zerbitzu guztiek ez dute eragin bera haien baldintza biopsikosozaletan. «Zuzeneko arreta-zerbitzuak» izenekoak dira (osasun-arreta, arreta geriatrikoa eta abar), zalantzarik gabe, greba-egoeretan mantendu beharreko funtsezko zerbitzuak, mendekotasuna duten pertsonekin zuzenean lotuta daudelako. «Arreta zuzeneko zerbitzuen» barnean ditugu, halaber, otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, deialdi zehatz honetan, higiene pertsonala, eta zeregin horiek guztiek osatzen dute zerbitzuko erabiltzaileen —bereziki, mendetasun handia dutenen— osasun narriatua zaintzeko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati bat. Era berean, «zuzeneko arreta zerbitzuaren» barruan sartzen da altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo jateko laguntza ematea.

6) Zuzeneko arretako zerbitzuez gain, beste zerbitzu batzuk ere badaude, neurri txikiagoan bada ere, ematen zaizkienak eta aurrekoen zeharkako mende daudenak (garbiketa, garbitegia, sukaldea, etab.) edo egoitza-instalazioen eta -zerbitzuen koordinazioan, mantentze-lanetan eta segurtasunean laguntzen dutenak.

Hori dela eta, garbiketa-zerbitzua indartu egin behar da, osasun-agintarien neurriek ezartzen duten intentsitate eta aldizkakotasunarekin egin ahal izan dadin; hau da, arreta berezia jarri behar da garbiketari, zentro osoaren desinfekzioa barne hartuko baitu nahitaez, eta maiztasuna handitu behar da, txanda bakoitzeko garbiketa 1eraino gutxienez, eta garbiketa areagotu behar da erabilera komunean eta ohiko igarotzako eremuetan, bai eta kontakturako esposizioenak dauden gainazalean ere, hala nola barandetan, botandeetan eta pasabideetan. Garbiketa-zerbitzuak IT1 jarraibide teknikoan jasotako neurriak bete beharko ditu: egoitza geriatrikoak eta beste zentro soziosanitario batzuk garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak.

Sukalde-zerbitzuari dagokionez, elikagaiak prestatzeko mantendu beharko da, baina elikagaiak ahalik eta modu erraz eta sinpleenean egingo dira, medikuaren berriazko agindu zehatzik ezean, eta erabili eta botatzeko erabiliko dira, zeregin horretan ahalik eta denbora gutxien erabiltzea dakarten protokolo edo metodologiaren arabera. Era berean, garbiketa-zerbitzuek, zeharkako zerbitzuek, baina beharrezko higiena zaintzeko beharrezkoak direnek, intentsitate txikiagoarekin, egoiliarren osasuna arriskuan jartzea saihesten duten oinarritzko zereginak egin beharko dituzte.

Mantentze-lanetako eta atezaindegia hartzeko zerbitzuek, funtsezkoak izan gabe, greba honetan gutxienekotzat jotzen diren zerbitzuak eta instalazioak behar bezala funtziona dezaten laguntzen dute. Gutxienean zerbitzu horien funtzionamenduan eragina izan dezaketen ustekabeak babestu beharreko funtsezko zerbitzuen berme gisa artatu beharko dira.

7) Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar burutu beharreko zereginiei dagokienez, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jarduera handiagoa metatzen da goizeko lehenengo orduan (jaiki, higie pertsonala, jantzi, medikazioa eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da. Hortaz, eguneko gainerako orduetarako ezarritako langile-kopurua baino handiagoa ezarri behar da aipatutako ordu horietarako, egoiliarren beharrei arreta emateko jarduera txikiagoa baita gainerako ordu horietan.

8) Grebaren eraginpeko zentroen espazioaren konfigurazioa ere kontuan hartzekoa da. Hau da, greba-egoera batean zentro bakoitzari zer giza baliabide banatuko zaizkion ezartzeko orduan, egoiliarrei arreta behar bezala eta segurtasunez emango zaiela bermatu behar da, eta gutxieneko zerbitzuak baldintza posibleetan eta horiek eman behar dituzten pertsonen arriskurik sortu gabe emango direla.

9) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke: osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzeraezinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela larrialdiko osasun-sistemaren bidez. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekotasuna edo mendekotasun handia dute pertsonen kasuan batez ere), kronikoa izaten da sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, arriskuan jar daiteke zainketa horiek behar dituztenen osasuna.

10) Greba honen deialdiaren esparruan, zentroak askotarikoak eta heterogeneoak dira; pertsonen mendekotasun-mailetan ere berezitasunak askotarikoak dira, baita kudeaketa-ereduak ere, langileen plantilei eta koadranteei dagokienez batez ere. Hori dela-eta, oso zaila da honelako agindu batean horiek guztiak homogeneizatzea.

Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxieneko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarritzko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarritzko eskubide hori baliatzeko aukera izan dezaten, bai eta greba egintzat har dadin.

11) Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 10. Zehaztapen Teknikoak (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez indargabetu denak baina, hala ere, oraindik ere aplikagarria denak, azken horren lehen xedapen iragankorraren arabera) ezartzen ditu gizarte baliabide hori behar bezala emateko behar diren gutxieneko langile-ratioak, langileen lan-karga eta erabiltzaileek merezi duten arreta kontuan hartuta. Ratio horiek saihestu daitezke greba-egoeretan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarritzko eskubideak bermatu egin beharko dira, ezinbestean.

12) Zuzeneko arretaren eta zeharkako arretaren funtsezko irizpide berberak aplikatu behar zaizkie mendetasuna (6.) duten adinekoentzako eguneko zentroei ere; izan ere, oro har, egoitzek baino langile gutxiago dituzte, eta horien erregulazioa urriaren 17ko 202/2000 Dekretuan dago. Dekretu horren baimen-irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinarekin lotuta (8. paragrafoa, zehazki, langileei buruzko da). Beraz, zuzeneko arretako zerbitzuak mantenduko dira zuzeneko arreta hori ematen duten gerokultoreen edo parekatuen %100arekin. Era berean, zeharkako arreta-zerbitzuak (garbiketa eta sukaldea) bizitegi-eremuan aplikatu diren irizpide berberekin mantenduko dira.

Zentro horiei dagokienez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 Epaiak xedatzen duenez, «greban zehar haiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarritzko izaerarekin. Gu ere bat gatoz oinarritzko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentroei eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroei dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarritzen da izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien ardura duten helduen zaintzapean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk gauzatzeko, funtsean lan-jarduera, lanegun bat baldin bada».

Zentro horietan funtsezko zerbitzutzat hartu behar da, halaber, mendekotasun egoeran dauden pertsonen garraioa, baldin eta egin behar dituzten joan-etorriak (aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira egin haien mugikortasun-ahalmenera egokitutako bestelako garraiobideen bitartez. Zerbitzu hori emango ez balitz, pertsona horiei kendu egingo litzaizkieke laguntza, terapia eta osasunerako arreta eta zerbitzuak, hau da, beren «eguneroko bizitzako oinarritzko funtzioak» deritzenak prebenitu, mantendu eta hobetzeko xedea dutenak (funtzio horiek bermatzen ditu, hain zuzen ere, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 24. artikuluan). Horren harira, gobernuko agintaritza honek portzentaje jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo izan baita zerbitzua azaldu den bezala emateko xedea ezartzea.

Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak bere irizpena eman du gai horri buruz, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorraren deialdiaren kariaz ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko Aginduaz 2013ko irailaren 25ean emandako epaiaren bitartez. Epai horretan, garraio-mota horri dagokion oinarritzko zerbitzuaren izaera aitortzen dio Auzitegiak, eguneko zentroek ematen duten oinarritzko zerbitzura iristea bermatzen duelako. Hala ere, Salaren ustez, xedapenak motibazioa falta du, «zerbitzuok emateko deia jaso duten langileen greba-eskubidearen mugaren proportzionaltasunari erreparatzen bazaio».

Aipatu behar da gobernu honek ez duela ehuneko zehatzik ezarri sektorean errealtate desberdin asko daudelako eta haiek guztiak ezagutzea zaila delako; hori dela eta, aipatutako testua nahikotzat jo zuen.

Greba-eskubidea baliatzeko aukera mugatzeak sortzen duen arazoa da kasu honetan aztergaia, zerbitzu hori emateko soilik kontratatu diren eguneko zentroetako langileen kasuan. Izan ere, erabiltzaileen ezintasunen ondorioz, zerbitzu hori emateko guztiz beharrezkoa da gidari bat eta begirale edo laguntzaile bat egotea, eta ezin da ezarri %100etik beherako portzentajerik. Bestalde, kasu hauetan ezin da ezarri eman beharreko garraioaren portzentaje-murrizketarik, zerbitzua ematen bada ere intentsitatea baxuagoa izan dadin. Izan ere, horrek langile horien lanaldia luzatzea eragingo luke, ohiko lanaldia baino luzeagoa ezarrita. Ondorioz, egoera honetan garraio bereziaren funtsezko zerbitzua bermatzeko eman behar den zerbitzuak guztiz mugatu diezaieke greba egiteko eskubidea langile horietako batzuei, zerbitzu hori egin dezaketen bakarrak direlako, baldin eta ez badago bestelako garraibiderik, erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunetara aski egokituta dagoenik.

13) Greba-deialdi honen eraginpeko zentroetako langileak era askotakoak dira, enpresa eta erakunde desberdinei atxikita baitaude. Hori horrela, egoitza eta eguneko zentro batzuetan, gerta daiteke langile batzuk grebara deituta egotea eta beste batzuk ez. Hori gertatzen bada, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektibo horien gutzirakoaren gainean zehazten dira greban estali beharreko langile-ratioak eta gutxieneko zerbitzuak.

Orain arte esandakoarekin bat eta guztia laburbiltze aldera, 2022ko ekainaren 29rako, “*Arabako egoitzen*” sektorean, lanordu osoan, deitutako greba gauzatzeko eskubidea baliatzea zilegi bada ere, pertsona kopuru jakin batek lanean jardun behar du «arreta zuzeneko zerbitzuak» emateko eta oinarrizko zerbitzu horiek emateko ezinbesteko diren beste jarduera batzuk gauzatzeko. Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu Gobernuak, auzitan dauden eskubideen ezinbesteko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Premisa horietatik abiatuta, 2022ko ekainaren 29erako aurreikusitako greba-deialdi honen aurrean, ezartzen da Arabako egoitzetan zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 50 mantenduko dela. Bazkariaren ohiko ordutegian eta goizeko 8: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara izan ezik, horietan ehuneko hori % 10 handituko baita, eta egoitza pribatuetan eta etxebizitza komunitarioetan soilik, baldin eta erabiltzaileen profilaren % 70etik gora II. edo III. graduako mendetasun aitortua badute, gerokultoreak edo parekatuak % 70 izango dira. Kuantifikazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2018ko martxoaren 8ko greba orokorra zela-eta 2018ko uztailaren 18an, 218/2018 prozeduran, eman zuen Epaiaren arabera egiten da. Era berean, gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua, eta garatu beharreko zereginak, soil-soilik, zuzeneko arretako langile gisa eratutakoak izango dira.

Zuzeneko arretaren funtsezko irizpide bera aplikatu behar zaie eguneko zentroei ere, egoitzek baino langile gutxiago baitituzte. Horregatik, zuzeneko arretako zerbitzuak %50ekin mantenduko dira, gosaltzeko eta bazkaltzeko ohiko ordutegian izan ezik, orduan ehuneko hori % 10 handituko baita.

Gutxieneko zerbitzu horiek, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2018ko uztailaren 18an emandako epaiaren ondoren, 2019ko martxoaren 8an, 2019ko irailaren 27an eta 2020ko urtarrilaren 30ean deitutako greba orokorren ondorioz emandako aginduetan ezarri dira, 2022ko maiatzaren 30ean Bizkaiko egoitzen sektore horretan bertan egindako greban emandako aginduan, baita, oraintsuago 2022ko ekainaren 17an Bizkaiko egoitzen sektorean emandako aginduan ere.

Agindu horiek ez dira premisa juridiko bat greba-deialdi honetan gutxieneko zerbitzuak finkatzeko – Konstituzio-doktrinak debekatutako inferentzia –, baina egiazta daitezke agindu hori babestu nahi duten Konstituzioak babesten dituen eskubide eta ondasunetan – Grebarena barne – Deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesetarako eragin dituzten ondorio positiboak edo negatiboak. Horregatik, eta funtzio, lurralde eta aldi baterako antzekotasuna kontuan hartuta, baita ukitutako pertsonen kolektiboena ere (enpresak, greba egin duten pertsonak eta zentroetako erabiltzaileak), agindu honek mantendu egiten ditu aipatutako aginduetan orain arte ezarritako gutxieneko zerbitzuak.

Inguruabar horiek guztiak eta, besteak beste, 1.288/2017 eta 873/2018 jurisdikzio-babeseko baliabideetan emandako epaiak baloratu dira aurreko deialdietan gutxieneko zerbitzuak ezartzerakoan. Hain zuzen ere, aipatutako bigarren epaiak, aurrekoarekin lotuz, honako hau dio berariaz: sektorearen berezitasunari dagokionez, zerbitzuen eta egoitzen hartzaileen berezitasunari dagokionez, gutxieneko zerbitzuak ezartzeko orduan jardutea justifikatzen dela, prebentziozko izaerarekin, Salaren aurrekari batzuetan Bizkaiko grebari dagokionez baloratu ziren egoerak ez sortzeko, (Babes Jurisdikzionaleko Errekurtsoa 1288/2017).

Azkenik, eta gutxieneko zerbitzuak egitera deitutako langileen ehunekoak aplikatzeko moduari dagokionez, agindu honek Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitzen sektoreko maiatzaren 21etik 25era bitarteko grebarako deiaren aurrean ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak arautzen dituen 2019ko maiatzaren 20ko Aginduan jasotako idazketa errepikatzen du. Agindu horrek aldatu egin zuen gutxieneko zerbitzuak egitera deitutako langileen ehunekoak zenbatzeko modua, eta, horrela, eragindako eskubideak babesten saiatu zen. Formula hori errepikatu egin zen, besteak beste, honako agindu hauetan: 2019ko azaroaren 8ko eta abenduaren 11ko Aginduak; 2020ko urtarrilaren 10eko, otsailaren 6ko, martxoaren 6ko, urriaren 2ko, urriaren 6ko, abenduaren 4ko eta abenduaren 18ko aginduak, Gipuzkoako eta Arabako egoitzen sektorean deitutako grebetan emanak; eta 2021eko abenduaren 10eko Agindua, Egoitzen Sektoreko grebarako gutxieneko zerbitzuak arautu zituen.

Gobernu Agintaritzari gai honetan eskumen eskusiboa esleitzeak bermatu nahi du greba-eskubidearen erabilerak izan behar dituen mugak Zuzenbidearen arabera baino ezin izango direla ezarri, oinarritzko beste eskubide batzuk betetzera bideratutako funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, eta gobernatzeko erantzukizuna eta ahala duenak bakarrik.

Hori dela eta, Lan Harremanei buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkari, baita Foru Aldundiari ere, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharrianari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) apartatua: zerbitzu publikoak edo premia aitortua eta atzeraezina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren Lehendakariordeak eta Lan eta Enplegu Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehen. -Agindu honetan ematen diren gutxieneko zerbitzuak:

1. Arabako egoitzen sektorean, 2022ko ekainaren 29an, deitutako greban langileek haien greba-eskubidea erabil dezakete, arreta zuzeneko zerbitzuak bermatzen diren heinean, zerbitzu horiek gutxieneko zerbitzutzat jo behar baitira, egoiliarren bizitza eta osasuna bermatzen dituztelako haien beharren arabera. Beraz, behar diren zerbitzuak emango dira egoiliarrek ohetik jaikiarazi eta oheratzeko (jarrera aldaketak eta abar barnean hartuta), osasun-asistentziarako (botikak, sendaketak...), baita oinarritzko higiene pertsonalerako, elikadurarako eta botikak banatzeko. Era berean, arreta zuzeneko oinarritzko zerbitzuak ezarri dira gutxieneko modura

2. Ondoren aipatzen diren langileek jarraian zehazten den moduan egin beharko dituzte jarduerak horiek:

2.1. Oro har.

2.1.1. Portzentajea kalkulatzera:

a) Ehunekoa 1 baino baxuagoa bada, pertsona bati dei egingo zaio, gutxieneko zerbitzuak eman ditzan.

b) Gainerako kasuetan, emaitza zenbaki zatikiarra bada, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

2.1.2. Artikulu honetan gutxienekotzat hartutako zerbitzuren bat ez duten zentro edo arloetan, aipatzen den langile-kopuru hori ez zaie gehituko beste zerbitzu edo arretei.

2.1.3. Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan.

Era berean, honako ordena honi jarraituz erabakiko da nork bete behar dituen «bat datozen» gutxieneko zerbitzuak: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei dei egingo zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxieneko zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

2.1.4. Medikuek bestelako agindu berezi eta zehatzik ematen ez duen heinean, elikagaiak prestatu eta egoiliarrei emateko prozesua ahalik eta modu sinple eta errazenean egingo da, erabili eta botatzeko elementuak baliatuta eta lanak egiteko ahalik eta denbora gutxien eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi dutenetatik ahalik eta langile gehienek baliatu ahal izan dezaten eskubide hori. Ezin izango da, inola ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

2.1.5. Lehenetsuna izango dute mendekotasuna duten pertsonen higie pertsonala zaintzeko eta pertsona horiei botika edo elikagai terapeutikoak emateko lanek —betiere, medikuek aginduta edo osasun-protokoloan jasota badaude—, arreta hori gabe arriskuan leudekeen heinean. Halaber, edozein kasutan, oinarritzko higie pertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da.

2.1.6. Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen arloetan egingo dira garbiketa-lanak. Horretarako, deialdi honetan erreferentziazko irizpideak izango dira behin eta berriz aipatu ditugun osasun gomendioak, bai eta Laneko eta Osasuneko Arriskuen Prebentzioko xedapen eta protokolo dokumentatuak ere. Hala, zentro osoa sakon garbitzen dela bermatu beharko da, desinfekzioa barne, eta garbiketa-lana areagotu egingo da erabilera

komuneko eta joan-etorri handiko guneetan, nahiz kontaktu handiko gainazaletan; besteak beste, barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatueta, telefonoetan, tabletetan, gurpil-aulkietan, makulueta eta abar. Txanda bakoitzean gutxienez behin egin beharko da garbiketa.

2.2. Egoitzak:

Egoitzetan, gerokultoreen edo horien pareko langileen %50ek lan egin behar du txanda guztietan, arreta zuzena ematen duten heinean. Bazkariaren ohiko ordutegian eta goizeko 08: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara izan ezik, horietan ehuneko hori % 10 handituko baita.

Soil-soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. edo III. graduako mendetasun aitortua duten egoitzetan, gerokultoreak edo antzekoak % 70 izango dira.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua, eta «zuzeneko arretako» zereginak soilik egingo dira.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira.

2.3. Eguneko zentroak:

Eguneko zentroetan, greba-egunean zuzeneko arretako zerbitzuei eusteko, arreta zuzen hori ematen duten gerokultoreen edo horien pareko langileen % 50ek lan egingo du. Gosariaren eta bazkariaren ohiko ordutegian izan ezik, ehuneko hori % 10 handituko baita.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira.

Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraiobideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.

2.4. Etxebizitza komunitarioak:

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekoen %50 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori %10 igoko baita. Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua, eta «zuzeneko arretako» zereginak soilik egingo dira.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira.

2.5. Osasun-langileak:

OLT/EUD langileen %50 egongo da.

2.6. Sukaldeko langileak:

Langileen %50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

2.7. Garbitzaileak:

Langileen %20ek lan egingo du. Garatu beharreko lanak agindu honen 2.1.6. apartatuan aipatutakoak izango dira eta egiteko beharrezkoa den denboran baino ez dira egingo.

2.8. Ateko/harrerako langileak:

Egoitzako sarrera nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunetarako baino ez du emango zerbitzu hori pertsona batek, txanda bakoitzean.

Bigarrenena. - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo bat-bateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Hirugarrena. - 1. Agindu honen 2.1.3. zenbakian ezarritako ordenaren arabera zehaztuko da zer langilek bete behar dituzten zerbitzu horiek.

2. Langileen ordezkariak entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira. 24 ordu lehenago jakinaraziko diote sindikatu-ordezkaritzari nork bete behar dituen eginkizun horiek.

Laugarrena. - Agindu honen aurreko apartatueta bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontratatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Bosgarrena. - Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.



Seigarrena. - Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Zazpigarrena. - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritza honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen,

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**